

# Iparraldeko monjeak

En las entregas precedentes he recordado el nacimiento y desarrollo de las Ordenes religiosas masculinas en la Euskal Herria peninsular, recorriendo los diversos Territorios Histórico a lo largo de los s. IX-XVIII; es hora, pues, de dedicar alguna atención a la historia de las de Iparralde (Lapurdi, Baja Navarra y Zuberoa).

Pirinioak ez dira izan sekula erabateko muga, Hegoalde eta Iparraldearen artean; baina erbeste-etatik iritsi zaizkien eraginak ezberdinak eta beste modu batekoak izan dira batean eta bestean. Baita Monasterio eta Komentuei dagozkien arazoetan ere. Kontuan hartzeko datua da hori.

## Monasterioen Iparraldeko testuingurua

Hegoaldeaz hitzegitean, behin baino gehiagotan esan da hemen nola Nafarroak beste Hiru Probintziei aurre hartu zien, Monasterioak eta Komentuak sortzean. Iparraldeaz, ordea, bestelako zerbait esan behar dugu, bai kronologiari dagokionez eta baita Etxeok izan zuten banaketa geografikoaz ere.

Iparraldea, txikia izanik ere, hainbat elizbarrutitan banatuta bizi izan zen Erdi Arotik XVIII.aren bukaera arte, hau da, gaur egungo Baionakoak ematen dion Diozesi-batasunik gabeko Eliza izan zen, V. mendetik hasita. Lapurdi eta Nafarroa Behereko parte on bat Baionakoak ziren bitartean, Amikuze eta Oztibarre nafarrak Akize-ren menpe zeuden, eta Zuberoa, berriz, Oloroeko Apezpikuaren esanetara. Erakunde-testuinguru horretan ulertu behar da Iparraldeko Ordena erlijiosoaren historia, nahiz eta erlijiosoak juridikoki beregainak izan Diozesien barruan.

Bestalde, Hegoaldean bezalatsu Iparraldean ere, Euskal Herritik kanpoko zenbait Monasterio izan zuen itzalik gurean eratu ziren lehen Monasterioetan. Gogora bitez iparralderantz Euskal Herritik kanpo baina beronen muga-mugatan zeuden Arthous edo Sorde, eta zerbait urrunago baina indartsuak ziren St-Sever eta Case-Dieu (Gers: Marciac)

Hegoaldetik, berriz, Orreagako kalonjeak eta aipatutako sanjoandarrak (Maltako Ordena, alegia) gertatu ziren Iparraldeko barnealdea "kolonizatu" zutenak, zinezko Monasteriorik gabe, baina han eta hemen eliza, kapera eta ospitaleak beren esanetara zituztela, eta komenigarria edo premiazkoa zenean monjeren bat edo beste tokian jarri, batez ere Nafarroa Beherean.

## Monasterioak eta Santiago-Bidea

Belokeko beneditarren Monasterio maitatua 1875ekoa dela jakinik, aurreko mendeetako beneditarren historia Iparraldean oso mugatua izan zela esan behar da, Monasterio kontutan bederen: Baiona ondoko San Benat da aipatzeko bakarra (1168).

Bestalde, Lehentze-koa dugu bestelako tradizio bateko Monasterioa. Sorrera beneditar ilun baten ondoren, kalonje agustindarrak jarri ziren Lehentze-n, Baiona ondo horretan premontre-





tarren arau-bizitzari jarraituz, Case-Dieu eta Art-hous-eko Monasterioetan bezala. XII. mendean sortua, Leuntzekoa ez zen Monasterio handia izan, baina bai Lapurdiko bakarra, izan ere gizonezkoen San Benat aipatuaren historia laburra izan baitzen. Bizitza erlijiosoan ez ezik lurraldea ondu eta irabazten ere lagundu zien inguruko nekazariei Leuntzeko Monasterioak.

San Benat eta Leuntze kostaldean lekuturik egon ziren, baina ez Barnealdean bere ondasun- eta zerbitzu-kokagunerik gabe. Hain zuzen, Leuntzeko Monasterioari Landibarren Behau-neko Ospitalea eman zitzaion (1227), eta pre-montretar hauek eduki zuten beren eskuetan Pagolako Ospitale-Priorgoa ere (Zuberoa). Hone-lako jabetasun eta zerbitzuak ugari egokitu ziren Barnealdeko Santiago-Bidearen inguruan.

Izan ere, Europatik zetozen bide nagusi batzuk Euskal Iparraldean zuten beren bateratze-puntua, eta benetako bidegurutzea zen Nafarroa Beherea Europako Iparraldearen eta Penintsularen artean. Erromes europarren andan-ak eta Monasterioen eragin-hedapenak paretsuan joan ziren, Iparraldeko lurraldea bidez eta auzoz antolatzen.

Iparraldeko Barnealdean Santiago-Bidea eta Monasterioen interesak elkarturik joan ziren hein handi batean, bereziki XII. mendetik aurrera. Jaurerri laiko edo hiribilduek (Izura, 1228...) bezala eliz mugimendu honek Iparraldea "modernoagotzea" sustatu zuen, eta bide batez europarrei Euskal Herria erosoago zeharkatzen lagundu zien.

Zalantzarik gabe, Orreagako kalonjeen elkar-teak izan zuen indarririk handiena Iparraldeko Santiago-Bidean, eta besteak beste Urdiñarbe-

n (Zuberoa) izan zituen ardurak gogora daitezke, Oloroeko Apezpikuaren aurka defendatu behar izan zirenak (1623). XIII. mendez geroztik Orre-agak ongi antolatuta zeukan Donibane-Garazitik Ibañetarako igoera, eta Bideak eskatzen zituen eskubide eta zerbitzuak. Kolegiatako kalonje agustindarrek arretaz zaindu zituzten horretarako eskubideak, Baionako Apezpikua-rekin lehian nahiz lankidetzan.

Gisa berean, beren agintariak Nafarroa Garaian zituztela, sanjoandarrek ere izan zuten zereginik Bide hori Iparraldean segurtatu eta laguntzen. XII. mendetik hasita (1189), Berroeta-ko Donibane (Maule), Baionan ospitalea eta otoitz-lekua, Nafarroa Beherean Aphet-Ospitaleko Jondoni Bladiren etxea eta kaperera, eta Iri-sarrin Donibaneren etxe, ospitale eta eliza behe-nafarrak ere Orreagaren eskuetan egon ziren. Era berean, Mendibe-ko parrokiari Lauribar-eko Salvatore eliza jada XIII. mendean sanjo-andarren eskuetan ageri zaigu.

Aipatu ditugun ipar erbesteko Monasterio-ek ere izan zuten lekurik euskal Santiago-Bide honetan. Horien artean azpimarragarriena beharbada Sorde-ko Monasterioaren kasua izan zen, Bizkai, Garrüze, Donaixti, Ostankoa, Oztibarre eta Izuran bederen bere ospitale eta kaperak izan baitzituen.

Horra, bada, nola antolatu zen Iparraldean monakismoa baino gehiago Monasterioen presentzia, XII. mendetik aurrera indarrean egon zena. Datorren hilean ikusiko dugun bezala, Eske-ko Ordenetako fraideak izan ziren hurrengo urrats berria.

**Joseba Intxausti**

*Galderak eta oharra: 610-273580*